GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO ONDASUN ARKEOLOGIKO ETA PALEONTOLOGIKOAK KONTSERBATZEKO ETA ZAHARBERRITZEKO LAGUNTZA TEKNIKOAREN ZERBITZUAK

BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA

Zerbitzu honen xede den kontratua gauzatzeko baldintzak honako hauek dira:

1- EMAN BEHARREKO ZERBITZUAK

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Ondasun Arkeologiko eta Paleontologikoak kontserbatzeko eta zahartzerritzeko laguntza teknikoko zerbitzuak.

2. FUNTZIOAK ETA ZEREGINAK:

2.1. FUNTZIO OROKORRAK

- Gordailua Ondare Zentroko Arkeologia eta Paleontologia Zaharberritze Tailerra kudeatzea eta behar bezala mantentzea.

- Arkeologia teknikariak ezarritako irizpideak eta beharrak jarraitzea.

- Kultura Zuzendaritza Nagusiak edozein formatutan, bereziki web gunean, argitaratu behar dituen eta kontratuaren xedearekin zerikusia duten informazio-eduki teknikoak prestatzea.

- Kultura Zuzendaritza Nagusiak hala erabakiko balu, praktiketako lanen gainbegiratze lanak egitea.

2.2. GORDAILUA GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO ARKEOLOGIA EDO PALEONTOLOGIA ONDASUNEN GORDAILU-ZENTROKO ARKEOLOGIA ETA PALEONTOLOGIA ONDASUNAK:

- Kontserbazio prebentiboaren programa proposatzea eta gauzatzea.

- Beharrezkoak diren sendotze- eta zaharberritze-tratamenduak egitea eta horrekin lotutako dokumentazioa sortzea eta kudeatzea (kontserbazio- eta zaharberritze-fitxak, argazki-dokumentazioa, etab).

Ohiko tratamenduez gain, honako hauek sartuta egongo dira:

- Liofilizazioa
- Elektrolisia
- PEGen bitartez egiten diren tratamenduak. Kontratu honetan eskatzen da PEGen tratamentuak martxan jartzeko aurretxostenak prestatzea.

- Arkeologia-teknikariekin elkarlanean aritzea erkatze-lanen eta ikerketa-kontsulten arloetan: ondasunen egokitzapen aholkuak ematea eta pieza zaurgarriak egokitzea, sendotzea edo zaharberritzea.

- Erakusketa-eskaeretan laguntzea: piezen maileguaren egokitasuna, kontserbazio-aholkuak, kontserbazio- eta itinerantzia-fitxak, korreo lana beharrezkoa denean.

- Analisi-eskaeretan laguntzea: piezen analisi suntsigarrien egokitasuna, laginketen prozeduren balorazioa, laginketak ikuskatzea eta beharrezkoa den kasuetan laginak egitea.

- Pieza arkeologikoen eta paleontologikoen argazki- eta 3D digitalizazio-dokumentazioa egitea, ekipamenduaren estrategia digitalaren barnean.

2.3. LURRALDEKO ARKEOLOGIA ETA PALEONTOLOGIA ONDASUNETAN (HIGIGARRIAK ETA HIGIEZINAK)

- Urteko esku-hartze arkeologikoak artatu kontserbazio- eta zaharberritze-ikuspuntutik:

    - Aztarnategietara bisitak egitea, egituren edota piezen kontserbazio-egoera aztertzeko eta arkeologoei aholkuak emateko.

    - Beharrezkoa denean, ondare higigarrien kontserbazio- eta zaharberritze-tratamenduak *in situ* egin edota piezak erauzi Arkeologia eta Paleontologia Zaharberritze Tailerrean tratatzeko.

    - Ondare-higiezinen kontserbazio-, sendotze- eta zaharberritze-tratamenduen irizpideak eta beharrak ezartzea, eta beharrezkoa denean gauzatzea.

    - Urteko baimendutako esku-hartze arkeologikoen eta paleontologikoen zuzendariak artatzea pieza zaurgarriak Tailerrera eramateko.

Aurreikusten diren sendotzeko eta zaharberritzeko pieza kopurua, haien tamaina eta zailtasunaraen arabera, 300 eta 350 artekoa izango da urtean.

2.4. GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIKO BILDUMEN ONDASUN ETNOGRAFIKOETAN

- Gipuzkoako Foru Aldundiaren etnografia bildumetako hainbati metal, larru eta zeramikazko materialen gaineko kontserbazio-, sendotze- eta zaharberritze-tratamenduen aholkua ematea, eta, ahal denean, tratamendu horiek egitea.

- Artelanen zaharberritze tailerrarekin, Gordailuko gainerako lan arloekin eta Ondare historiko-artistikoen, Bildumen eta Museoen Zerbitzuko langileekin beharrezkoa den lankidetza ezartzea.

3.- ZERBITZUAK BETETZEKO BALDINTZAK:

- Kontratuaren xede diren lanak ondasun arkeologikoen eta paleontologikoen zaharberritzaileek egingo dituzte. Baldintza hori frogatu beharko da kontratuaren Baldintza Administratibo Berezien Agiriko karatularen 16. atalean zehazten den moduan.

- Lanak jadanik hornitutako tailerrean egingo dira, Gipuzkoako Foru Aldundiko lokalean, *Gordailuan*, zentro hori irekita dagoen orduetan (8:00-15:30 gutxi gorabehera), edo kanpo-lanak *in situ* egin behar direnean, beharrezkoa den tokian. Mantentze, garbitze, berokuntza, ur eta zaharberritze materialen gastuak Gipuzkoako Foru Aldundiak ordainduko ditu.

- Kontserbazio, sendotze eta zaharberritze lanak Kultura Zuzendaritza Nagusiak zehaztutako irizpide eta lehentasunen arabera burutuko dira. Era berean, zaharberritze-fitxak egingo dira honako informazio honekin: *jatorrizko aztarnategi arkeologikoa, udalerria, kanpaina, testuinguru arkeologikoa, sigla, material mota, tratamenduaren hasiera eta amaiera datak, deskribapena, dimentsioak, mantentze egoera, tratamendua, oharrak, berrikuste-datak, tratamendua egin aurreko eta ondorengo mantentze egoeraren argazkiak eta mantentze beharrak*.

- Sendotu eta zaharberritu beharreko ondasunen kopurua aldatzeko aukera izango da beti, Kultura Zuzendaritza Nagusiak zehaztutako irizpideen arabera.